





08

Kortezubi

Gautegiz Arteaga

Ibarrangelu

Elantxobe

Haitzulo eta baso
margotuak

08

Haitzulo eta baso margotuak

BI-2238, BI-4244, BI-3234 eta BI-2237 errepideetatik doa ibilbidea, Gernikako itsasadarraren eskuineko ertzetik, eta Elantxobe arrantza-portura heltzen da, kareharrizko inguru malkartsu batetik zehar. Baso eta haitzuloz beteriko lekua da, non antzinako gizakiak nahiz egungoak talentu sortzailearen aztarna utzi baitute.



Kortezubi

Itsasadarraren eskuineko bazter zingiratsuaren eta kostaldeko Ereñozar mendi kareharrizkoaren artean kokatzen da nekazarien landa-elizate hau. Haitzulo ezkutuetan, Bizkaiko kultur altxorrik handienetako batzuk gordetzen ditu.

Santimamiñe haitzuloa

Eskuinetara hartzen duen bidaiariak, Kortezubitik hur-hurrean, Santimamiñe haitzuloa eta Oma harana bisitatu ahal izango ditu, elkarren ondoan daude eta.

Margolanez hornituriko historiaurreko santutegi bizkaitarrik ospetsuena da lehena, Ereñozar mendiaren kareharrizko errailetan barrena hedatzen dituela bere galeriak. Eta mendiaren gainean, ermita zelataria: Done Mikel. Santi Mami da Santimamiñeren jatorria, inguruko ermita gotiko bat, alegia.

Edertasun natural handiko galeria nagusi eta luze baten inguruan antolatzen da multzo hau: iragazketa burdintsuek koloreztaturiko estalaktitak, igarobide estuak, ganberak eta dibertikuluak, bata bestearen ondotik. Galeria nagusiaren amaieran eta eguzkiaren argitik urrun dauden ganbera batzuetan, animaliak irudikatzen dituzten labar-margolan eta grabatuak daude: bisontea, zaldia, hartz arrea, ahuntza eta abar, profilak betiere beltzez eginik. Madeleine aldiko «santutegi sakona» da; hirurogeita hamar urte baino gehiago dira aztertzen hasi zenetik, eta oso estimatua da.

Bizkaiko Foru Aldundiak eskailera eta zaldainak jarri ditu, haitzuloa atondu eta erosoago bisitatu ahal izateko, baina margolanak inguruarekiko oso sentiberak direnez, mugatu egiten da sarrera.

Oma harana: baso margotua

Santimamiñetik apur bat aurrerago, Oma dago: baserri zaharrek, ermitek eta baso margotuek osaturiko paradisu gizatiartu txikia. Baserri horietako batean bizi da Agustín Ibarrola, eta bere etxetik hurbil baso bat margotu zuen, 1984an. Pinudi bat da euskarria: pinuen enborretan,

garaiera eta sakonera ezberdinetan, orban abstraktuak margotu zituen, oso kolore biziak baliatuz. Emaizta oso plastikoa da. Naturan esku hartzea izan da artistaren asmoa. Ez bide da ausazkoa Oman historiaurreko arte iraunkorra eta gaur eguneko «land art» iragankorra batzea.

Done Jakue eliza

Berriz ere errepide nagusian, Urdaibaiko padurako lezkadiak ia guztiz inguratutako Kortezubiko parrokia. Burualde poligonaleko habearte errektangeluar bakarra du, eta burualdea besterik ez da gangaz estaltzen. Gainerakoa, berriz, era herritarrean estaltzen da: bi isurkiko egurrezko sabaia, hornei loturiko zutikoen gainean bermatzen diren zertzez hornitua. Egurrezko egitura hori agerian dago, gune axialean izan ezik, bertan sabai izuna baitago.

Dorrea estribuduna da, eta oinplano prismatiko eta lau angeluko dauka; bi gorputzekoa da, eta oinaldean dago. Atarian Done Jakueren kapera babesten da, oinplano karratuko santutxo apala.

Egungo tenplua xvi. mendekoa bide da, eta dorrea hurrengo mendearen hasierakoa, 1602az geroztik Pedro Ruiz de Aboitiz baitzen haren arduraduna.

Erretaula nagusia. Salomoniko churriguerekoa, 1735 ingurukoa. Titularra izan ezik, Done Jakue Erromesa, 1500 inguruko tailla hispaniar-flandestar bikaina baita.

Beste Done Jakue bat –Done Jakue Mairu-hiltzailea– gurtzen da bere santutxoan; tailla rokoko da, Gerónimo de Argos edo Manuel Azeborena seguru asko.

Gautegiz Arteaga

Etxe burgesak sakabanatzen dira ingurumen ederreko inguru honetan. Lurraldearen zati bat kareharrizkoa da, haren errailetan jaspezko harrobiak landu, eta azalean arte atlantikoaren sailak zabaltzen direla; eta bestean padurak daude, itsasaldiek tarteka urperatzen dituztenak.



Aurreko orrialdean:

Kortezubi. Omako basoa. Agustín Ibarrolak irudi figuratibo eta abstraktez margotu ditu Omako pinuen enbor biziak. Honako hauetan giza siluetak azaltzen zaizkigu.

Orrialde honetan:

Kortezubi. Omako ibarraren ikuspegia, ohikoa Euskal Herriko Kantauriko isurialdean: baserriak zelai eta baso artean sakabanaturik daude.

85. orrialdea:

Kortezubi. Omako basoa. Kolore bizietako irudi abstraktuak, artistak naturan txertatuak.

*Orrialde honetan, goialdeko ezkerrean:
Arteaga. Santa Maria eliza. Errenazimenduan
euskal harginak iaioak ziren gurutze-ganga
zailak egiten, eredu gotikoen arabera.*



*Orrialde honetan, goialdeko eskuinean:
Santa Maria eliza. XVI. mendeko giro baikorrak
eramanda, batzuetan proiektuak parrokiaren
beharrak gainditzen zituen. Irudian, eliza
zabala, zutabe gainean eraikia.*

*Orrialde honetan, behean:
Arteagako gaztelua (1856). Frantziako Gortean
mamitutako ale neogotikoa, Arteagatarren
lehengo dorre gotorraren gainean eraikia.*

*87. orrialdea:
Kortezubi. Santiago Erromesaren taila.
Bizkaiko irudikapen ederrenetako bat, toki hau
Santiago Bidean dagoen seinale. Estiloa Berant
Erdi Arokoa edo espainol-flandestarra da.*

Bazter zingiratsu hau Urdaibairen bihotza da, biosferaren erreserba 1984az geroztik, zuhaitzi, larre, baserri eta elizateek osaturiko paisaia ikusgarria, non hegazti migratzaileen saldoak pausatu eta elikatzen diren. Padura hauen balio ekologikoa nahiz paisaiarena hartuko zituen aintzat UNESCO, biosferaren erreserbatzat hartzean. Ereñozar eta Atxerre mendi konikoen talaiaitik, bi ermitak zaintzen dute ingurua.

Andra Maria eliza

Errepidearen eskuinaldean dago, eta haren inguruan ez da elizate gunerik eratu. Eraikin aipagarria da: lau tarteko hiru habearte ditu –azken tartea oso laburra–, eta burualde alakatua. Tarte guztiak altuera berekoak dira. Hainbat diseinu ezberdin dituzten ganga nerbiodunez estaltzen dira «kaperak», zutabe gainean bermaturik. Emaiza: Errenazimentuko zutabedun eliza.

Oinaldean sarrera nagusia dago, arrosa koloreko jaspez egina: pilastretan oinarrituriko erretaula baten tankerakoa da diseinua, eta atikoak sigi-saga eginez gaintitzen du malda. Eskuinaldean beste ate bat dago, lehenagoko eraikin batetik harturikoa, joera erromaniko inertziazkoan egina.

xvi. mendearen erdialderako eginik egongo zen eraikinaren funtsezko partea. Izan ere, amaitutzat hartu zen 1616an, eliza deskribatu eta bere zabaltasuna goraiatu zenean. 1630ean oinaldeko portale klasizista hasi zen, Juan Ortiz de Olaeta bertako trazatzailearena.

Erretaula nagusia neoklasikoa da: marmol itxurako egurrean eginiko distiloa da, eta Jasokunde-Koroatzearen irudiak erakusten ditu erdian. Juan Bautista Belauntzaraneke marraztu zuen, 1810ean, eta Juan Bautista Mendizábal II.a arduratu zen eskultuz.

Presbiterioko atakaren zokaloan Arteagako oinetxearen bi armari daude. **Organoa** 1884koa da, Walcker etxekoa.

Arteagako gaztelua

Elizatik hurbil, padurara bidean, Arteagako oinetxea dago, gaur egun gaztelu ospetsua. Napoleon III.ak eta Eugenia de Montijo bere emazteak –garai hartan bera baitzen oinetxearen jabea– eman zuten lehengo gotor-dorrearen gainean gaztelua eraikitzeko agindua. Couvrechet frantsesa izan zen arduraduna –1856–, gune inperialen arkitektoa, alegia; gerora Ancelet-ek ordeztuko zuen. Newman Frantziako errege lorategien arduradunak marraztu zuen Arteagan izan zen lorategi osagarria, parterre eta zumardiz hornitua.

Estilo neogotikoko gaztelua izan zen emaitza: erdian gorputz garai almenaduna du, eta torloju moduko beste dorretxo prismatiko are garaiago bat du atxikirik; izkinetan dorreak dituen harresi batek inguratzen du kanpotik.

Frantziar Midiko Beaucaire-ko gotorlekuaren kopia da, Viollet le Duc-en espiritu historizista oso nabaria delarik.

Bizkaian estilo honetan egindako lehen eraikinetakoa da. Oso egoera txarrean zegoen, harik eta arestian ostalaritza-erabileretarako berreskuratu den arte.

Kanaletik jarraituz gero, **Legendikako Andra Maria eliza** apala –xvi. mendekoa, oso errestauratua eta kokaleku ederrekoa– eta errepide ondoko Santutxua ikusi ahal izango ditu bidaiariak, eta itsasadarraren ahoko paisaia zoragarriaz gozatu: Mundaka, Bermeo eta Izaro, edota Laida eta Lagako hareatzak, bainurako leku ezagunak.

Ibarrangelu

Landa-elizate urrun honek ongi zainduriko erdigunea dauka, San Andres eliza buru duela.

San Andres eliza

Bizkaitar panorama artistikoan «unicum» bat da, egurrezko sabaia margoturik dituen elizaren kasu berezia. Tenpluak habearte errektangeluar bakarra du, luzera zabalera halako bi delarik; bost tartetan dago banaturik, eta, gangei





dagokienez, hamabost «kpera»tan. Gangak izar diseinu konplexukoak dira, eta molde gotikoaren arabera katuriko nerbioak dituzte. Sabai erraldoia du, izan ere, elkarren ondoan atonduriko egurrez osatua; diafragma-arkuak, giltzak eta nerbioak ere egurrezkoak dira eta tenperaz margoturik daude.

Margolanen programa zabala da, eta Errenazimentuaren kutsu humanista dario, asmo erlijiosoko lanekin osatua: putti, maitasunaren irudiak, memento mortis, burezurrak dituzten umeak, fantasiatzko txoriak, gizaki groteskoak eta abar (Maitasunaren, Ospearen, Harrokeriaren eta Heriotzaren alegoria neoplatonikoak), edota apostoluak, Andra Maria eta Jesus Haurra, Santa Luzia, Santa Barbara edo San Gabriel erakusten dituzten tondoak, bost zaurien armarriak, Done Jakue Clavijon eta abar.

Margolanak karteletan dataturik daude (1559), eta estiloa bat dator datarekin; maisu manierista ezezagun ez oso trebe

Orrialde honetan:

Ibarrangelu. Ganga pintatuaren xehetasun bat. San Andres elizaren ganga itxurazkoan nerbioak eta haien arteko atalak, egurrezkoak, pintatuta daude; irudi hauek (1559) Errenazimenduko humanismoaren kutsua dute.

89. orrialdea:

Elantxobe. ikuspegi panoramikoa. Aldapa malkarretan eraikia, arrantza-herrien tankera gorde du.

baina ongi informatu batek egindakoak dira. Bizkaitar margogintzaren kapera sixtinotzat hartzen da margo programa zabal hau, eta «era bitxian irarri eta margoturik» zegoela esanez deskribatu zen 1616an; gaur arte gorde du, seguru asko, aldeko irizpen hori. Arestian errestauratu da. Guztiz gomendatzekoa da pinturazaleentzat.

Erretaula nagusia. Egur polikromatuan eginik, apaingarriz zamaturiko egitura salomonikoa da. 1735 inguruan data daiteke, rokokoaren atarikoan.

Andra Mariaren irudi bat ere badago: XIV. mendeko tailla gotikoa da, kalitate handikoa.


Elantxobe

Ibarrangeluko elizateko arrantzaleen auzoa izan zen XVIII. mendera arte. Gaur egun arrantza-portu urbano eta bitxia da: itsasoari begira dago malda piko batean, Ogoñoko kareharrizko labar ikaragarriaren azpi-azpian. Bizkaiko kostalde malkartsuko lekurik zoragarrienetakoa da Elantxobeko bazter txiki hau. Itsasoaren usain bizia dario.

Bere kaleen geografian etxe eta etxetzarrak daude elkarren segidan –gehienak XIX. mendeko neoklasikoak–, multzo trinko bat osatzen dutela.



Goiko aldeko plazatxo batean San Nikolas eliza dago, itsasoari loturiko izenpekoa: itsasoko jendeak 1799an sustaturiko eraikina da. Oinarrizko pilotaleku bat du atxikirik, pilotan egiteko, Bizkaian sakon erroturiko kirola baita.



- Legenda**
- Zein toki bisitatu ibilbide honetan
 - Autopista
 - Ibilaldiko errepidea
 - Oinarrizko sareko errepidea
 - Eskualdeko errepidea
 - Tokiko errepidea

